

ADINEKOEI LAGUNTZEKO 2017eko PRIMITIVO DE VEGA IKERKETA BEKA

MAPFRE Fundazioak 2017ko Primitivo de Vega Ikerketa Beka antolatu du, adinekoenganako laguntzaren arloan zientzia lan bat egiteko dirua emateko.

Beka jasoko dutenak:

Beka hau zuzenduta dago deialdiko oinarrietan aipatutako arloetan ikerketa proiektuak garatu nahi dituzten eremu akademikoko eta profesioleko ikertzaileei eta ikertaldeeiei betiere adinekoenganako laguntzaren arloan.

Laguntzen ezaugarriak:

Gehienez ere 15.000 euro emango dira.

Bekak urte natural bat iraungo du, onartzen eta formalizatzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaerak aurkezteko epea eta era:

Laguntza hauek eskatzeko, agiriak online bidez erregistratu eta bidaltzeko epea 2017ko urriaren 20an amaituko da (egun hori barne). Ikertzaile nagusiak **2017ko urriaren 17a baino lehen (egun hori barne) bidali beharko ditu ondorengo agiriak PDF formatuan igz.deialdiak@ehu.eus helbidera, Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura behar den epean lortzeko:**

- 1. Ikertzaile nagusiaren eskaera galde sorta.**
- 2. Behar izanez gero, ikertaldearen eskaera galde sorta.**
- 3. Curriculum vitae profesionala, ikertzaile nagusia izendatuta ikertaldeak direnean. Curriculumaren gehieneko zabalera bost orrialdekoa izango da ikertaldeko kide bakoitzeko, eta batez ere aurkeztutako proiektuaren gaiari emango zaio garrantzia.**
- 4. Erdietsitako titulu edo ziurtagiri akademikoen kopia eskaneatua.**
- 5. Orijinala eta berria izango den ikerketa proiektuaren azalpen txostena ondokoak erabilia: https://www.fundacionmapfre.org/fundacion/es_es/ayudas-becas-premios/becas/investigacion-primitivo-vega/ webguneko txantiloia, 8tik 12ra bitarteko luzera, Arial letra mota eta 12 puntuko letra tamaina. Bazter geldituko dira laguntzetarako ezarritako gehieneko zenbatekotik gora kostatu eta finantziazio gehigarria izatea aurreikusten ez duten eskaerak.**
- 6. Proiektu bera egiteko laguntza konkurrenteen formularioa (Eredua Ikerketaren arloko webgunean duzue. Kontsultatu nola bete behar den).**

7. **Ikastegiko Etika Batzordearen egiaztapena**, ikerketa klinikoko proiektuetan edo ikerketaren nolakoak halaxe eskatzen duenean. **Animaliekin Esperimentatzeko Batzordearena**, animaliekin esperimentatu behar bada.

Agiriak ondoko hizkuntzetan aurkeztu ahalko dira: gaztelaniaz, ingelesez eta portugesez.

Agiri guztiak aztertutakoan, **UPV/EHUren legezko ordezkariak sinatutako "gutun aurkezpena"** agiria bidaliko zaio ikertzaile nagusiari Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik.

Ikertzaile nagusia izango da eskaeraren azken aurkezpena deialdian jarritako epean (2017ko urriaren 20a, egun hori barne) modu telematikoz egiteko arduraduna.

Lehen fase honetan ez da paperezko agiririk aurkeztu behar. Laguntza jasotzeko Balioespen Batzordeak proposatutako proiektuen ikertzaile nagusiak **erabakia argitaratu eta hiru asteko epean bidali beharko ditu, beheko helbidera, sinatutako jatorrizko formularioak, ikastegiko aurkezpen gutuna eta, behar izanez gero, Etika Batzordearen ziurtagiria**, ondoko erreferentziarekin: "Beca Primitivo de Vega 2017", eta segidan hautagaitza aurkezten duen arloaren izena:

FUNDACIÓN MAPFRE
"Beca Primitivo de Vega 2017"
Área de Promoción de la Salud
Paseo de Recoletos, 23
28004 Madrid

Informazio gehiago:

https://www.fundacionmapfre.org/fundacion/es_es/ayudas-becas-premios/becas/investigacion-primitivo-vega/

Ikerketaren arloko kontaktua: igz.deialdiak@ehu.es / 94 601 8008